



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-12-04

VIURTEA 1.576.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ezkerrean, ikaztegietan, taloak egiten, eta eskuinean Asteasun, euskararen zuhaitza osatzen, atzo. I.GARCIA



Voronezh konpainiaren txotxongiloetako bat Aranburu jauregian. I.T.

EUSKARAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDI FESTA ESKUALDEAN

TOLOSALDEA - LEITZALDEA Areson, Asteasun, Ikaztegietan eta Tolosan herritar ugarik hartu zuen parte euskararen alde z

Errusiako txotxongiloetatik bidaia Aranburun

TOLOSA Hilaren 8ra arte Obrastsov, Voronezh eta Ekaterinburgokoak daude ikusgai 4-5

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:
5 liburu
80€

10 liburu
140 €

Salmenta puntuak:
Galtzaundi eta
Tolosaldeko eta
Leitzaldeko
Hitzako bulegoetan



ARANZADI



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

Euskara zabaldu eta erabiltzeko gogoz

Euskara » Areson, Asteasun, Ikaztegieta eta Tolosan herritarrek parte hartu ahal izan zuten antolatutako ekitaldietan.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan Euskararen Eguna ospatu zuten atzo. Areson, Asteasun, Ikaztegieta eta Tolosan herritarrei zuzendutako ekitaldiak antolatu zituzten.

Areson guraso elkarreakantolatu zituen goizeko ekitaldiak, Udalaren laguntzarekin. Eguraldiari aurre eginez haurrentzako jolasak, herriko trikitilarien emanaldia, hamaiketako eta herriko gazteen pilota partidak ikusi ahal izan ziren. Atzo eskolarik ez zuten izan haurrek, Euskararen Eguna izateaz gain, Nafarroako Eguna baitzen. Horrela, arratsaldean, Nafarroako Gobernuak eta Euskara zerbitzuak antolatuta, Txan magoaren emanaldia izan zuten eta ondoren talo jatea egin zuten.

Ikaztegieta ere talo jatea egin zuten herriko haurrek. Udalak emandako produktuekin. Alkatea, zinegotzi bat eta gurasoak aritu ziren taloak egiten haurrekin batera. Bien bitartean, trikitixa doinuak entzun, euskal dantzak egin eta abesten aritu ziren ikasleak.

Asteasun jaialdi erraldoia antolatu zuten Udalak eta Pello Errota eskolak. Ikasleek frontoian abestu zituzten hainbat kantu gurasoen aurrean eta ondoren euskararen zuhaitzari hostoak itsatsi zizkieten. Merienda ere izan zuten eta Txorromorro taldeak *Gramola* ikuskizuna egin zuen. Bukatzeko, diskofesta antolatu zuten.

Tolosari dagokionez, haur liburutegian Idoia Sanchezek ipuin kontaketa egin zuen, Ereite elkarreak antolatuta. Bestalde, Joxerra Garziak hitzaldia eman zuen euskarari buruz, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat ikastetxeetan ere ekitaldiak antolatu zituzten euskararen inguruan.



Areson haurrentzako jolasak egin zituzten atzo goizean. A. IMAZ



Ikaztegieta dantzan aritu ziren haurrak elizaren arkupeetan. I. GARCIA



Asteasuko frontoian Pello Errotako ikasleak kantuan aritu ziren. I. GARCIA



Tolosan, Joxerra Garziak euskara izan zuen hizpide eta Idoia Sanchez ipuinak kontatzen aritu zen. I. GARCIA



Erreboteko Enrique Abril txapelketaren finala udaberriera atzeratu dute

Villabona » Partida bi aldiz atzeratu ondoren hartu du erabakia Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) Erreboteko Enrique Abril Txapelketaren finala udaberriera atzeratzea erabaki du. Eguraldi txarrazela medio, final hori bi aldiz bertan behera utzi behar izan da. «Gauden urte garaia irerparatuta, eta eguraldiaren ezezagortasunaz jakitun, berriz ere partida hori ez programatzea erabaki da», azaldu dute federaziotik.

Parte-hartzaile guztiak hitz egin ondoren den ustearekin, eta eguraldi hobea egingo duen itxaropenez atzeratu da udaberriera. Villabonako Behar-Zana eta Luzaz Gazte taldeek jokatu dute partida.

Laburrak

Udalak batzarrera deitu ditu herritarrek gaurko

ALKIZA » Udalak dei egin die herritarrei gaur, 21:00etan, Kultur Etxean egingo den batzarrera joateko. Bertan San Martin festaren balantzea eta aste kulturalaren antolaketa proposamena landuko dira.

Uriaren hilketaen aurkako elkarretaratzea, gaur

TOLOSA » Inazio Uriaren hilketaen aurka, gaur 12:00etan Tolosako Udalak elkarretaratze isila deitu du udaletxearen aurrean.

Udalak egindako 2009ko egutegia banatzen ari dira

ZIZURKIL » Udalak egindako 2009 urterako egutegiak dagoeneko hasi dira banatzen udaletxean eta Aurrera plazako udal bulegoetan. Nahi dutenek bertara joan eta egutegia eskuratu ahal dute.

'Golazen' filma ikusteko aukera asteburu honetan

TOLOSA » Joan den igandean Leidoren iragarritako zegoen *Golazen* filma bertan behera utzi behar izan zuten, arazo teknikoengatik, eta konpentsatzeko asmoz, *Golazen* filmaren bi emanaldi berri eskaintzea adostu du Udalak ET Brekin, biak ere dohainik. Hilaren 5ean, ostirala, 18:00etan, eta hilaren 6an, larunbata, 11:00etan.

«Gaztetxearen XXI. urteurrenean jendea gerturatu egin nahi dugu»

Alegia » Helburuetako bat «jendea Gaztetxearen dinamikara hurbiltzea» izango da aurten, izan duen bizi hori berreskuratzeko.

NEREA URBIZU

Gaur egun Alegian 40 urte inguru duen jendeak ederki gogoratuko ditu Alegiako Gaztetxearen lehenengo pausoak. Aurten 21 urte bete ditu Gaztetxeak, Tolosaldeko helduenetarikoa izanik. Gaztetxearen XXI. Urteurrena ospatuko dute aurten, eta hilabete honetan zehar bihartzek hasita, herritarrei zuzenduriko kultur, gastronomia, aisi eta sormen ekitaldiak antolatuko dituzte. Bihar hasi eta urtarilaren 4era arte iraungo du urteurrenaren.

Aurten Gaztetxearen xede nagusia, nolabait esatearren, «jendea Gaztetxearen dinamikara hurbiltzea» eta era batean hura bizitzea izango litzateke. «Azken urte hauetan utzi xamarra dago, ez dugu lehen bezainbesteko ekitaldirik antolatzen». Horretaz gain, «dirua ere behar da ekitaldiak antolatzeko, eta diru aldetik ez gabil-tza oso ondo». Gogoratu behar da, esaterako, Alegiako karmenetan festa alternatiboak antolatzen dituztela eta honetarako ere, dirua «asko ez bada ere» behar dela. «Koltxoi» bat behar dugu gauzak egiteko, zorrrik ez egiteko».

Aurten Gaztetxearen alde dirua ateratzeko ekitaldiak kontzertuak, biharko zerbeza feria eta DJ festa

izango dira. Beraz, Alegiako Gaztetxeak alegiarak zein inguruko herritarrek ere gombidatu nahi ditu Gaztetxera, giro onean egiteko eta honen alde egiteko, hain zuzen ere.

Hasteko, bihar zerbeza feria

Bihar zerbeza feria izango da Gaztetxearen. Honetarako 10 bat garagardo desberdin eskainiko dituzte: «Ez dira arraroak edo bereziak, merkatuan daudenak dira, baina prezioz merke xamar eskainiko ditugu». Garagardoekin batera saiheskia ere prestatu dute. 19:00ak aldera bilduko dira eta festa hasiko da orduan.

Oraindik txartelak badaude bertara joateko, bihar barne. Sei euroan jarri dituzte txartelak. «30 lagun espero ditugu».

«Nahi den giro horren bila»

Aspalditik dagoen ping-pong mahai ere aprobetxatuko dute. Izan ere, Ping-pong Txapelketa antolatuko dute. «Bertan parte hartzeko izena egunean bertan ematearekin nahikoa izango da». Hau, hilaren 12an izango da. Aipatu bezala, «asmoa da jendea igoaraztea, dinamika honetan sartzea». Ping-ponga «jendea biltzeko ekitaldia izango da eta giroa izatea espero dugu honetan ere». Bata bestea zirikatzeko balioko du txapelketa honek, giro jatorra lortuz.

Hilaren 13an (AHTren aurka dauden alde egunean) babarrun-jatearen prestatu dute. Honetara joateko ere txartelak daude sal-

gai oraindik, ohiko lekuetan eta hilaren 11ra arte. Honetan txartela 12 euro kostatuko da, eta horietatik bi euro Alegiako AHTren aurkako taldearentzat izango da.

Babarrun-jatearen ondoren herriko bertsolariak ariko dira, eta trikipoteoan herrira abiatuko dira. Ondoren, kontzertuak hasi aurre-

Hilaren 27an (larunbata) urteurrenetan ohikoa bihurtu den play back-a izango da

tik zahagi ardoa prestatu dute. Hesian eta Disorders taldeek lehen aldiz bisitatuko dute Alegiako Gaztetxea, taula gainean behintzat.

Zea Mays eta Humus

Hilaren 20an Zea Mays taldea ariko da Humusekin batera. Zazpi egun beranduago Gaztetxearen urteurrenetan ohikoa bihurtu den Play back-a izango da. Honetan, herriko jendea taula gainera igotzen da eta nahi duena egiten du: antzerkia, abestiren bat, imitazioak... Dena onartzen da: «Herrikoek egiten dute normalean eta herrikoentzat izaten da. Giro oso ona sortzen da egun horretan».


Play back-aren ondoren Txapa, *hotsa ta burrundie* bataiatu duten festa izango da. Hainbat DJ elkartuko dira eta disko edo musika dantzagarria jartzeaz arduratuko dira goizeko 08:00ak ingurura arte.

» EGITARUA

- **Abenduak 5.** Zerbeza feria Gaztetxearen. 19:00ak aldera elkartuko dira.
- **Abenduak 10.** Zine kluba 21:30a aldera.
- **Abenduak 12.** Ping pong txapelketa. Izena emateko momentuan bertan.
- **Abenduak 13.** Babarrun-jatearen. Ondoren herriko bertsolariak, triki-poteoan herrialdera gero eta



laz babarrun-jatea ere egin zuten Gaztetxearen. ASIER IMAZ



Biharko zerbeza ferian 10 garagardo desberdin inguru izango dira. HITZA

zahagi ardoa, ondorengo kontzertuez gehiago gozatzeko. 22:00ak inguruan Hesian eta Disorders.

■ **Abenduak 17.** Zine-kluba 21:30a aldera.

■ **Abenduak 18.** Aramaiurko Gazteluari buruzko hitzaldia (Arantzadi).

■ **Abenduak 19.** Mus Txapelketa 22:00ak aldera. Izena han bertan eman behar da.

■ **Abenduak 20.** Zea Mays eta Humus talde tolosararren kontzertuak 22:00etatik aurrera.

■ **Abenduak 27.** Play-back-a (mikrofono irekia). Ondoren, «Txapa hotsa eta burrundie», hau da; DJ festa goizera arte.

Afaldu ondoren hasiko litzateke. ■ **Urtarrilak 4.** Antzerkia: *Gemika* (Alproja taldea). Arratsaldean izango da.



«Baserritarrei esker ditugu kalitatezkoak»

ALTZO » Joan den igandean Altzoko Udalak bertako babarrunaren kalitatea aitortzeko, diploma bat jaso zuen Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik. Iñaki Murua Altzoko alkateak, baserritarrei eskertzeko aprobetxatu zuen hitza eskuratu zuenean eta haienzako merezitako hitzak izan zituen: «Gure baserritarrek egiten dute lana babarrunaren alde eta kalitate ona haiei esker da». Altzoko herritarrek eta herriko Arandia jatetxeak diploma bana jaso zuten honen inguruan. Bide batez, Tolosako Babarrunaren Kofradiak haien urteroko festa Altzon ospatu zuten. HITZA

IRUDIMENARI BEGIRA



Titirijai Erusiako Obratsov, Voronezh eta Ekaterinburgoko konpainien txotxongiloak daude ikusgai Aranburu jauregian, hilaren 8ra arte.

INGOTERRAULOS

Denbora azkar Erusiari buruz eginko bidaia proposatzen da Titirijai jaialdiko erakusketak. Lurralde horretako pertsonaia ohikoekin nahiz historikoen errepresentazioa ezagunak baliatuz irakitzeko da lehen mundu berezi eta ikusgarri bateratuz Aranburu jauregia.

Erusia da aurtengo Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko lurralde gubidana, eta hori dela eta, bertako bost konpainia art dira ikusizunak eskaintzen. Horretaz gain, lekuare Erusiako txotxongiloekin ez dute, bainu zuzenean, hiru konpainietako txotxongiloekin: Obratsov, Voronezh eta Ekaterinburgokoak.

Obratsov konpainiaren txotxongiloekin hasten da irudimeneren bidia. XX. mendekoak denak, zharrorenetik garu gangaotara daude banaturik, eta era eta material askotarikoak ikus daitezke: harriak, hegazkiak, erakak, eskularruak, itzal teknikoak, titiriteroak moztuak, janzten duen erakak... eta egurrezkoak, kartzeak eta telak. Pertsonaiei dagokionez beste bi konpainietan bezala, ipuin klasikoak eta taula ikus eta pertsonaia historikotara doa. Erakusketaren azken zatian ikus daitezke Voronezh eta Ekaterinburgokoak. Gai eta pertsonaia berriak jorratzen dituzte, eta hainbatetan asiar kutsua nabaria da txotxongiloen formetan.

Handiagoak nahiz txikiagoak zaharagoak nahiz berriagoak guztiak dira ikusgarriak, eta ezbaierik gabe, ikusleak merezi du.



Voronezh konpainiaren txotxongiloak. Berritako eskioari dagokionez. Umorea nahiz beldura jorratzen dutenak ikus ditzakegu...

2 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu!

Capellan - Galarza VI Chafee - Rai

BENGOETXEA VI - BELOKI TITIN III - ZUBIETA

Galarza V - Merino Diaz - Iza

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu!

BRUESA GBC Vive Menorca

IGANDEA

ABENDUAK 7 - 12:30

ILLUNBE

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

2 pertsonentzako afaria
zozketan, deitu eta eskuratu!

Tolosan

Abenduak 5, 6, 7 eta 8an ospatuko den Txuletaren dia



GAURKO EGITARAUA

Behi Bis (Euskal Herria)
17:30, Kultur Etxea. Vuren bidia lanaren estreinaldia da. Bunka eta itzalen teknika erabiliz, familia osoari zuzendutako lana izango da. Iker Fresnedoren zuzendaritzapean, Natacha, ekialdeko etortako biltarik, Murren istorioa kontatzen du.

Teatro Nu (Katalunia)
18:00, Musika Eskola. Jonoren argia lana eskainiko dute. Mahai txotxongiloak erabiliz, familia osoari zuzendutako lana da, Victor Borreren zuzendaritzapean. Alta gaurko duen eta haren bitan sal-batu behar duen haur batek dituen emozioez hitz egiten du ikusizunak. Kultur arteko suleraren adibidea da.

Buenos Airesko konpainia (Argentina)
22:30, Kasinoa. Bortzoko ikusizuna eskainiko dute. Bunka teknika eta mahai txotxongiloak erabiliz, helduei zuzendutako emanaldia da. Miguel Rur-en zuzendaritzapean, Buenos Airesko pertsona ohiko istorioak umorez, musika eta abestekin kontatzen dituen saioa da. Taberna baten barruan gertatzen da dena, tangoraino injuriaz.

Obratsov-en txotxongiloak. Hiru bertsioren istorioa edota Hitler eta heriotza bazalakoak ageri dira. Eskulainan, behin Obratsov-en lehen txotxongiloa...



Ekaterinburgoko txotxongiloak. Berritakoak, eta esiar itzura dutenak ere badaude...

Koordinazioaren erakustaldia

KULTURA Italiako Teatro Allegre taldekoek ikusizuna eskaini zuten herri-egun guzian Kasinoan. Hitz gabe saioa da, mahai gineko txotxongiloak erabiliz. Titiriteroen artean duten koordinazioa da batez ere aipagarria emanald honetan. Istorio trisateagoak edo alaiagoak aurkezten zizuten, baina, guztiak ere, ondo landutakoak. www.eketa.com

«Aurkari gogorra da Mendizabal; segurtasun handia du kantxan»

Lizartza » Hilaren 13an jokatuko dute Mendizabalek eta Olaetxeak Bigarren Mailako Lau t'erdiko finala.

REBEKA CALVO

Mikel Olaetxea pilotari gazteak erronka garrantzitsuari egin beharko dio aurre hilaren 13an. BBK Promozioko Lau t'erdiko Txapelketako finala jokatu beharko baitu lizartzarrak Zaldibiako Aratz Mendizabalen aurka.

Oraindik ere astebete baino gehiago du aurretik eta «lasai» dagoela esan du gazteak. «Batez ere kantxan eroso egon nahi dut, partidarekin disfrutatu nahi dut», argitu du pilotariak.

Finalerako txartela Bellosoren aurka Legazpin jokatuako partidaren lortu zuen. Ez zen partida erraza izan eta urduritasunak ez zien mesederik egin bi gazteei: «Partida zaila zen biontzat, lagunak gara eta sentsazio arraroarekin ateraginen kantxara. Urduri geunden biok. Ni batez ere lehen zatian egon nintzen urduri eta azkenean takadetako partida egin genuela uste dut. Nahiko blokeatuta egon nintzen, baina azkenean buelta ematea lortu nuen».

Finala

Urretxun hilaren 13an Mendizabalen kontra izango den finalaren inguruan Olaetxeak argi du zer egin behar duen: «Irtenbide gutxi ditut, egokiena nire lana ondo egitera joatea da. Zaila jarriko diot».



Mikel Olaetxeak hilaren 13an jokatu du Mendizabalen aurkako finala. HITZA

Mendizabal da partidako faborito eta horrek ere lasaitu egiten du lizartzarra. «Aurkari gogorra da, kantxan egotera ohituta dago, segurtasun handiarekin ateratzen da kantxara, baina saiatuko naiz bere lana zailtzen», esan du.

Denboraldiko lehen partida

Beharbada, hortaz, Mendizabal izango da faborito, baina Olaetxeak denboraldi guztian zehar egingako lana ikusita, auskalo zer gertatzen den. Izan ere, Lizartzakoaren lehen partida «ia txiripaz» irabazi zuen. «Oso gutxi entrenatu nuela joan nintzen, sentsazio txarrek jokatu nuen. Ez dakit nola irabazi nuen ere», argitu du. Ondorengo partidetan «gusturago» egon zen Olaetxea gaztea eta finalerako txartela lortzea ere ahalbidetu dio horrek.

Orainxe entrenatu eta entrenatu ari da, asteen bitan pilotarekin, kantxan, eta gainontzeko egunetan Ainhoa Artolarekin beste modu bateko ariketak egin ditu. «Presio pixka bat» ere sentitzen duela dio gazteak, baina horiei aurre egin eta batez ere «lan ona» eginen saiatuko da.

Urretxuko finalean ikusiko da denboraldi «on» honi amaiera bikaina ematen dion.

Gutunak

Mendiak, sentimentuak... Euskal Herria

Urbanas, Larrunen, Gipuzkoako kostan, Arabar Errioxan, Kolitzan, Iratin, Xiberuan... Euskal Herriaren barrera ibili gara. Inposaturiko mugen gainetik Euskal Herria sentitu dugu mendi irteeretan. Maite ditugu euskal mendiak.

Euskal Herriko mendizaleak, ez gara espainiarrak ezta frantsesak ere. Horregatik, garen bezala agertzeaz gain, inposatu nahi diguten nortasun arrotzaren aurrean, euskal naziotasuna aldarrikatu eta defendatzen dugu. Ibarako Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak EHNArekin federatzeko deialdia luzatu nahi diegu Tolosaldeko mendizaleei.

Bestetik, makina bat euskal mendizale espainiar mendi federazioarekin federatzen da, FEDMEArekin, oztupoak eta aterpeetako deskontuak argudio hartuta. Guk jakinarazi nahi dugu federatzeko garaian, Euskal Mendi Federazioarekin federatuz gero, ez dagoela inongo oztoporik, asegu-

ruak mundu guztirako balio baitu. Euskal Herria bere buruarekin jabe izatearen bidean eta intsumisio jarrera harturik, hainbat mendi taldek (Oartzun, Donostia, Irun eta abar) FEDMEArekin harremana moztu eta Euskal Mendi Federazioarekin soilik federatzen dute. Jarrera txalogarria eta adibidegarria dela iruditzen zaigu. Mendi taldeok, eta mendizaleok orokorrean, nahiz eta pausoak poliki eman, bide luzea dugu egiteko, tontorra urrun ikusten da, baina bidegarbi. Pilota, kickboxing... federazioen antzera, mendi taldeok Euskal Herriko Mendi Federazio (probintzia guztiak batuko dituen) lortzeko indarra egin beharra daukagu, euskal futbol jokalariek erakutsi duten bezala ausardia eta konpromisoa hartu behar ditugu motxilan.

Animo eta ekin pausoak emateari, EHNArekin, euskaldunak garelako, Euskal Mendi Federazioan egin mendi txartela.

Ibarako Haitzetan Raju mendi taldearekin eta Bai Euskal Herriari zuzenean. Ibarra.

@ Zurea da hitza. Atal honetan, zure inguruan gertatzen diren gertaera edo ekitaldien berri eman dezakezu. Honez gain, eskualdeko gai ezberdinen inguruko iritzia ere eman dezakezu. Bidaltako testua, ondoren, ostiraleko HITZAREN papereko edizioan argitaratuko da:

www.tolosaldeko-hitza.info

Egitarau oparoa Kirol Astean

Ibarra » Kirol Astea hilaren 13an hasiko da; bestalde, Belabietako arduradunek kiroldegian baja nola hartu argitu dute.

ERREDAKZIOA

Ibarako Belabieta kiroldegian aterekin astea antolatuko dute Kirol Astearen barruan. Ekintza ugarietan parte hartzeko parada izango da hilaren 13tik 21era. Bestalde, Belabietako arduradunek kiroldegian baja emateko zenbait argibide eman dituzte: kiroldegian baja eman nahi dutenek hileko lehen bi asteetan egin beharko dutela eta urte bukaeran abonamendu txartela entregatu beharko dutela.



Ibarra Racingeko Koldo Alonsoren materiala ere izango da ikusgai. I.TERRADILLOS

» KIROL ASTEAREN EGITARAUA

Abenduak 13

■ **15:00.** Mahaiko tenisaren ikastaroa izango da kiroldegian 10 urtetik gorako gazteentzat.

■ **15:00.** Bigarren mailako liga jardunaldia Usabal Tolosa eta Club Natacion Pamplonaren artean.

■ **16:00.** Xakeko Gipuzkoako Bakarkako partida azkarren txapelketa kiroldegian.

Abenduak 14

■ **10:00.** Xakeko Gipuzkoako Ekipoen arteko partida azkarren txapelketa kiroldegian.

Abenduak 15

■ **17:30.** Eskalada ikastaroa 10 urtetik gorako gazteentzat kiroldegian.

Abenduak 17

■ **17:30.** Eskalada ikastaroa 10 urtetik gorako gazteentzat kiroldegian.

Abenduak 18

■ **17:30.** Ibarra Racingeko Koldo Alonsoren, Marcos Landaren eta Jon Maritxalaren materialaren erakusketa Ibarako plazan.

Abenduak 19

■ **17:30.** Eskalada ikastaroa 10 urtetik gorako gazteentzat kiroldegian.

■ **19:30.** Euskal alpinismoaren historiari buruzko proiektzioa eskainiko dute; *Pirineoetatik Himalayara 1939-1980* izeneko dokumentala, zehazki. Antxon Iturrizak aurkeztuko du eta Kultur etxean izango da emanaldia.

Abenduak 20

■ **15:30.** Pilota eskolaren erakusketa izango da kiroldegian.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Deitu 657 23 00 11era edo 634 919 482ra.

Kontseiluaren 10. urturenean, erakusketa udaletxean

Leitza » Erakusketa abenduaren 10ean, 11n eta 12an irekiko dute. Abenduaren 13an BEC-en egingo dute ekitaldia.

ASIER IMAZ

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hamar urte bete ditu eta herritarrekin hori ospatu nahian, erakusketa ibiltari bat jarri du abian. Eta hain zuzen ere, erakusketa hori ikusgai izanen da Leitza-ko udaletxeko goiko aretoan, abenduaren 10ean, 11n eta 12an, goizean zehar eta baita arratsaldean ere, 18:00etatik 20:00etara.

Bost estadioak bete zirenekoa Erakusketak Kontseiluaren ibilbidea laburbiltzen du, hala nola 1998an *Bai Euskarari!* lelopean Euskal Herriko bost estadioak betetzea lortu zeneko unea. San Mamesen, Anoetan, Sadarren, Agileran eta Mendizorroztan bildu ziren 125.000 herritarrek *Bai euskarari!* erran zuten ozenki.

Erakusketa interaktiboa da, ikus-entzunezkoekin, panelekin, argazkiekin,... eta modu entretenigarrian jasotzen da bertako informazioa. Beraz, eta sarrera doan izango dela kontuan izanik, antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte erakusketara hurbil daitezela.

«Abenduaren 13an BEC-eral»

Lehen esan bezala, Kontseiluak 10 urte bete ditu eta pauso berriak emateko garaia iritsi dela adierazi dute: «Euskararen normalizazioaren bidean urrats sendoak eman beharra dago». Hori dela eta, abenduaren 13an, larunbatean, Barakaldoko (Bizkaia) BEC-en elkarteko deialdia egin du Kontseiluak.

Kontseilutik azaldu dutenez, «aldaketarako garai iritsi da, aurrerapausoak emateko garaia da». 1998. urtean erabili zen leloa ere berrituko dute, izan ere, gaur egun «Bai Euskarari esatetik, Euskaraz Bai egitera igarotzeko garaia dela» azaldu dute.

Leitzatik autobusa

BE Cera joan ahal izateko, autobusa antolatuko dute Leitza. Autobusean Barakaldora joateko 8 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko berriz, zerrendak jarri dituzte herriko hainbat puntutan: Torrea eta Gaztañaga tabernetan eta Astiz eta Maimurren.

Autobusean joateko izena ematen dutenei, ekitaldiko sarrera autobusean bertan banatuko diete. Izena emateko azken eguna abenduaren 10a, asteazkena, izanen da. Autobusa abenduaren 13an, 16:00etan, Oialde paretik aterako da.

'Nierebanoa.com'

Kontseiluaren 10. urturen ospatzeko ekitaldira bere kabuz joan nahi duenak, sarrera lortzeko aukera *nierebanoa.com* helbidean aurkituko du. Horretarako bertan agertzen den orria bete behar da.

Laburrak

Zine denboraldiko film berria behar eta igandean

LEITZA » Zine denboraldiaren barnean, bihar 22:30ean, *Yo servia al Rey de Inglaterra* filma eskainiko dute Leitza-ko zinean. Igandean, abenduaren 7an, 19:30ean eskainiko dute bigarren aldiz filma. Hurrengo astean berriz *4 meses, 3 semanas, 2 dias* filma eskainiko dute.

Joseba Irazokiren kontzertua Gaztetxean

LEITZA » Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak urtero bezala, Kultur Elejira antolatuko du. Abenduaren 12an, Leitza-ko Gaztetxean, UEMAK Joseba Irazoki musikari beratararen kontzertua antolatuko du 22:00etan. Antolatzaileen artean Euskara Zerbitzua ere aurkitzen da.

Garaipena eta lidertza Transportes Lakunzak

VILLABONA » Euskal Ligako beste jardunaldia jokatu zuen Transportes Lakunzak Galdakaon. Villabonako taldeak Lagun Onak liderraren etxean jokatu zuen iragan larunbatean. Partida gogorra izan zen baina eskualdekoek 5-6 irabaztea lortu zuten. Asier Etxanizek lan bikaina egin zuen, bi gol sartu zituelarik. Hautsi Izagirrek ere bi gol sartu zituen. Emaitza honi esker, Euskal Ligako lehen postua lortu du Tranpostes Lakunzak.

Tolosaldeko pilotarien partidak han eta hemen

AMEZKETA » Probintzialeko finala irabazi egin zuen Erik Jaka lizartzarrik 18-5. Jubeniletan, Olaetxea-Manterolak 17-22 galdu egin zuten. Zazpi-Iturririko pilotariekin jarraituz, bihar Amezketan, binakako senior mailan partida jokatu dute etxeko pilotariak 22:00etan. Bidegoiango eta Tolosako Aurrera-Saiaz pilota eskola-koek asteburuan jokatu zituzten euren partidak. Ibarran eta Beoti-barren aritu ziren. Kadeteetan bi partidak galdu zituzten. Seniorretan berriz eskualdean hiru partida jokatu zituzten eta hirurak irabaztea lortu zuten.



Gerra Zibilaren inguruko hitzaldia

TOLOSA » 1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaaldean liburuaren aurkezpenaren ostean, herenegun udaletxean gerra izan zuten gogoan berriro, *Gerra Zibila Tolosaldean* hitzaldian. Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikel Errazkin eta agertu zen hitzaldia eskaintzeko, eta honekin batera Jokin Bildarratz izan

zen hitzaldiaren sarrera egiteko. Bilkura aretoa jendez beterik zegoen, tartean, Gerra Zibila zuzenean bizitu zutenak ere aurkitzen zirelarik. Oroimen kolektibaren inguruan mintzatu zen Mikel Errazkin, honen baitan, Tolosarekin lotura zuten garai hartako hainbat datu aipatu zituen. LEIRE ZUBELDIA / GALTZAUNDI

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799-

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urturen eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Hilberria

JOXE IRASTORZA AGIRRE

Atzo hil zen, 83 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goianbego-

Bere anaia zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; emaztea: Julia Apaolaza; seme-alabak: Alberto eta Irene Irastorza, Esther eta Iñigo Santxo, Elxabet eta Kike Fernandez de Pinedo; bilobak: Laida eta Sara, Peru eta Joan, Aratz eta Uxue; anai-arrebak: Ignacio (I) eta Bixenta (I), Juanita (I), Fany eta Pedro M^o (I); ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuak, Joxemiel eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otzitx bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko SEIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Bildotxaga baserria.

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da 11:45 arte.



OLABERRIA

2008ko

abenduaren 4a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibaraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** Elia Kazanen *Esplendor en la hierba* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean zine-forumean.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Txotxongiloen jaialdiko erakusketa, *Errusiarako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian.
■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olanoko kiroldegian.

Deialdiak

■ **Tolosaldea.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatutako duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izan-ematea, Galtzaundi egotzian 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).
■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 5etik 8ra izango da Zerkasian. Afariak 5etik 7ra eta bazkariak 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.net helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Iruztzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzieren erantzunik.

Babestutakoak zozketatu dituzte

Villabona » Atzo Salvadorako babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa egin zuten Gurea aretoan.

ERREDAKZIOA

Atzokoan 49 lagunek zorte euren aldeko izan zuten Villabonan, izan ere, Gurea Antzokian Salvadorako babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa egin zuten. Guztira 49 etxebizitza zozketatuko zituzten eta 241 lagunek zuten aukera horietako bat lortzeko. 49 etxebizitza horietatik bi ezinduko diren pertsonari esleitzeko prestatu dituzte eta bost lagun zeuden izena emanda horretarako. Beste 47 etxebizitzak 236ren artean zozketatu ziren. Jende ugari joan zen Gurea aretora, zorteak noren alde egin zuten jakiteko.

Etxebizitzaren inguruko ezaugarriak ere zehaztu dituzte. Hain zuzen, egun Loatzoko musika eskola dagoen eraikinaren ondokoak izango dira eta Kale Nagusira begiratzeko dute. Eraikiko diren etxebizitzetatik zazpi 3 gela eta 2 bainugela izango dituzte; berrogeik, 2



Haur batek atera zituen kutxetatik papertxoak, jendearen ikusminaren aurrean. I. GARCIA

gela eta bainugela bat; eta bik, gela bat eta bainugela bat. Azken bi hauek 40 metro koadro ingurukoak dira eta gainontzekoak, berriz, 57 eta 81 metro koadro artekoak.

Villabonako Udalak, Salvadorko erregimen orokorreko 27 etxebizitza tasatuen inguruan ere

deialdia kaleratu du. Hala, interesatu guztiei jakinarazten die udal-letxe iragarki taulan jendearen agiriari dagoela Villabonako arau subsidiarioetako etxebizitzaren eskabideak formalizatzeke baldintzen plegua.

Zehaztu dutenez, zozketa pu-

bliokoan bidez egingo dut esleipena, eta eskaera aurkezteko epea, gaur bertan hasi eta hilaren 17ra arte egongo da zabalik, 14:00ak arte.

Kontsultak egiteko aukera ere izango da lanegunetan (astelehenetik ostiralera, biak barne).

LALIA EMAKUME
ZAPATA DENDA

- Emakume, gizonezko eta umeentzako zapatak
- Bitxiak, poltsak, gerrikoak, diru-zorroak...
- Aukera handiak prezio merkean

Gernikako arbola, 3 behea • Tolosa
Tel.: 943 65 34 14 • 636 85 62 27 • 661 22 08 70

MIKEL LABOAREN OMENEZ

Abenduaren 7an berriarekin DOAN



Jose Luis Zumetarako Mikel Laboaren egindako erretratuak; egileak edizio honetarako utzia.



euskaraz bai

13!

pauso bat harago

laguntzailea **hitza**

Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00

Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzeko:
nierebanoa.com webgunean
902 82 02 40 telefonoon

KONTSEILUA